

Iñaki Goirizelaiaren dantzari buruzko CVa

2016/07/29

Dr. Ingeniari Industrial. Ingeniaritza Telematikoan katedraduna. I2T ikerketa taldeko kidea. UPV/EHUko errektorea.

Dantzari buruzko CVa

Bost urteekin sartu zen Olaeta Balletetan. Bittor Olaetaren ikaslea izan da 40 urteetan. Berarekin euskal dantzak eta dantza klasikoaren oinarriak ikasi zituen. Euskal Herriko bazter guztietan egin du dantzan.

Olaeta Balletekin dantza emanaldi askotan parte hartu zuen eta taldearen dantzari nagusi horietako bat izan zen. Hona hemen parte hartu zuen Bittor Olaetak egindako koreografia berrien zerrenda:

- ✓ Euskogai
- ✓ Copellia
- ✓ En un bazar
- ✓ Fausto
- ✓ **Polca humorística**
- ✓ Aiko Maiko
- ✓ El Atalayero de Matxitxako
- ✓ **Zorgiñeta**
- ✓ Mesa osteko jaia
- ✓ Show Olaeta
- ✓ Lau urtearok
- ✓ Plenilunio y ezpata dantza de Amaia
- ✓ Oinkarin
- ✓ Kasket
- ✓ Ur Beltzeko **Lamiñak**

ABAOren opera emanaldietan ere parte hartu zuen 1981 eta 1982 urteetan Bittor Olaetak egindako koreografiak dantzatzeko. Bertan, besteak beste, produkzio hauetan dantzatu zuen:

- ✓ Aida
- ✓ Rigoletto
- ✓ Don Giovanni
- ✓ Perlen arrantzalea
- ✓ El elixir de amor
- ✓ Andrea Chenier
- ✓ Fausto
- ✓ Lucrecia Borgia

Euskal operetan eta zartzueletan ere dantzatu du:

- ✓ Amaia
- ✓ Mendi Mendan

- ✓ Zigor
- ✓ El Caserio

Bittor Olaetarekin euskal dantza tradizionalen oinarrituz, dantza berriak sortzeko oinarriak ikasi zituen.

Dantza klasikoa eta jazz dantza ikasteko hainbat ikastarotan parte hartu du Euskal Herrian eta Londonen.

1974n Mungian dantza taldea sortu zuen Jone Goirizelaia bere arrebarekin batera. Une hartan dantza taldea desagertuta zegoen eta Mungian euskal dantzaren errekonstruzioa lortzeko aurrerapauso itzela izan zen. Mungiako lehen dantza eskola sortu zuen.

Geroztik hona dantza maisua izan da Mungiako Dantza taldeetan. Gaur egun Mungiako Amilotx Dantza Taldeko dantza maisua eta zuzendaria da. Azken urteetan Bittor Olaetaren ikasketei jarraituz, koreografia berriak egiten ditu Amilotx Dantza Taldearentzat, gehienetan euskal kantak eta musika erabiliz. Urtero dantza emanaldi berezi bat aurkezten du Mungian, bere koreografia berriak eta dantza tradizionala uztartuz.

Iñaki Goirizelaia sortutako koreografia berriak

Mikel Laboaren kantak

- ✓ Gure bazterrak
- ✓ Antzinako bihotz
- ✓ Izarren hautsa

Antton Valverderen kantak

- ✓ Itauna
- ✓ Mendigoizaleena

Ruper Ordorikaren kantak

- ✓ Izen zaharrok
- ✓ Sekulabelardiko kantaria

Gatiburen Kantak, Alex Sardui

- ✓ Bang-bang txiki-txiki bang-bang
- ✓ Euritan dantzan

Dr. Deseo, Francis

- ✓ **Corazón de Tango**

Musgaña, Burgoseko musika tradizionala

Gure esku dago kanta

Gibel Urdiñak

- ✓ Polka

Itziarren semeak

- ✓ Zenbait bertso xeibre